

Bilboko Itsasmuseum zabaldegian 2021ean interbentzio artistikoa egiteko deialdia

Itsasoz salgaiak garraiatzeko erabili ohi diren edukiontzi industrialekin esku hartzea egin nahi da. Aurtenetxea Containers enpresako edukiontziak ikusgai egongo dira Euskaldunako zubiak eta Itsasmuseum-en dikeak osatzen dituzten ibaiadarraren bi ertzek egiten duten anfiteatrotik.

Hiru edukiontzi ditugu: bi handi eta txiki bat. Hala ere, bi edukiontzi soilik behar dituzten proposamenak ere aurkeztu ahal izango dira (edozer konbinazio: bi handi edo txiki eta handi bana).

- Edukiontzi handiaren neurria: 6 x 2'5 x 2'5 m.
- Edukiontzi txikiaren neurria: 3 x 2'5 x 2'5 m



"#lanbikaina", 2019.
Laura Martínez Martín.



"Plastikozko itsasoak", 2018
María Acuña.



"El camino de la sirga", 2017.
Xabier Dobarán y María de Viana.

2020/2021 ikasturtean Arte Ederren Fakultatean matrikulatuta dauden ikasle guztiak deitzen ditugu parte hartzera edukiontzia euskarri gisa erabiliko dituen proposamen iragankor bat hautatzeko lehiaketan. Esku hartzea amaitu ondoren, lehen zegoen bezala geldituko da tokia.

Proposamenak edukiontzien balizko muntaiak planteatu beharko ditu, eta horietan esku hartuko da. Era guztietako esku hartzeak (piktorikoak, eskultorikoak, ikus-entzunezkoak, performatiboak, etab.) edukiontzien kanpoaldean egin beharko dira nahitaez.

Aurkeztutako proposamenaren arabera, edukiontzia kolore jakin batez margotuta entrega daitezke.

Aurtenetxea Containers arduratuko da edukiontzia muntatzeaz, garraiatzeaz eta behar bezala instalatzeaz, eta segurtasuneko neurriak bermatuko ditu.

Edukiontzien gaineko esku hartzea museoko zabaldegian instalatu aurretik edo ondoren gauzatu ahal izango da.

Aintzat hartuko da esku hartzeek lekuaren testuinguruarekin zerikusia izatea, hau da, Itsasadarra itsas museoaren zabaldegiaarekin, esaterako Bilboko itsasadarrekin, horren leheneratze lanekin eta hiriarekiko loturarekin, garai bateko portuarekin, itsasoarekin eta abarrekin.



"Paperezko itsasontzia", 2016.
Álvaro Aroca.



"Contenido contenido", 2015.
Juan Malk.

Zuzkidura ekonomikoa:

• 1.500 € hautatutako proposamenarentzat.

(Zenbateko horren barne daude laguntza poltsa eta produkzioko gastuak).

Proiektua bakarka edo taldean gauzatu ahal izango da, baina kontuan hartu behar da saria proiektu bati emango zaiola, ez parte hartzaile bakoitzari.

Bestalde, hautatutako proiektuaren egileak/egileek konpromisoa hartuko du/dute jarduera osagarriren bat egiteko pieza aktibatzeke asmoz esku hartzea instalatuta dagoen bitartean, epaimahaiak beharrezkotzat joz gero. Besteak beste, ekintza, hitzaldi, bisitaldi gidatu edo performance bat izan daiteke.

Datak.

2021ko ekinaren 7ra arte: proposamenak entregatzeko.

Aste berean saiatuko gara aukeraketaren ebazpena komunikatzen.

Proposamena gauzatzeko eta inaugurazioa egiteko proposamen ezaugarrien arabera definituko da

Proiektuaren iraupena: sei hilabetetik urtebetera bitartean.

Proposamenak.

Dossierretan aurkeztu beharrekoa:

- Izen-abizenak, helbide osoa eta harremanetan jartzeko datuak (email eta telefonoa).
- CV laburra.
- Aurretik egindako lanei buruzko portfolioa (gehienez, 10 irudi).
- Esku hartzearen proposamena eta aurrekontua.

PDF formatu digitalean aurkeztuko dira (geh. 5 Mb) helbide honetan:
ecultural.bellasartes@ehu.eus

+ Informazio gehiago: ecultural.bellasartes@ehu.eus

+ Lehiaketan parte hartzeak oinarri hauek guztiak onartzea dakar.

Oharra:

Parte hartzaileek baimena ematen dute datu pertsonalak tratatzeko. UPV/EHUren fitxategi batean sartuko dira "Esku hartzea Bilboko Itsasadarra itsas museoaren zabaldegian" deialdiko onuradunak hautatzeko eta jarraitzeko helburuz. Horren berri ematen da Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 5. artikuluan xedatutakoari jarraikiz. Halaber, jakinarazten dugu beren datu pertsonaletara sartzeko, horiek zuzentzeko, ezerezteko eta aurkaratzeko eskubidea izango dutela. Horretarako, idazki bat bidali beharko diote UPV/EHUko Segurtasunaren arduradunari (DBLO) (Errektoretza, Sarriena auzoa z.g., 48940 Leioa, Bizkaia) beren identitatearen ziurtagiri baten fotokopiarekin batera. Datu pertsonalen babesari buruzko UPV/EHUren erregelamendua honako helbide honetan kontsulta daiteke: www.ehu.es/babestu.